



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-  
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea  
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak  
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

### Aralar ildoa

Gure herrian pairatzen dugun arazo politiko honen ondorioak eta arazoa bera erro-errotik gainditzeko, gizar-tearen eragile guztiek jokatu beharko lukete asmo onez horren alde; hemen ez da inor libratzen. Baina, jakina, denok ez dugu erantzukizun berbera. Politikariek, gobernuburuek, ETAko buruzagiek eta abar, esate baterako, edozein herritar aruntek baino ardura handiagoa dute afera honetan. Horrexegatik neronek, nire txikitasunetik, lehendabizi eskatzen diet Espainiako eta Frantziako lehendakari mugitzeko benetako baketzearen alde. Bigarrenik, gauza bera PSOE, PSN, UPN, UA, RPR eta abarri. Hirugarrenik, su-eten mugagabea ETari, baina hori badakigu ezinezkoa dela, lehenago euskal alderdi politiko abertzaleen artean ez badituzte lortzen erakunde armatuaren gutxieneko helburu politikoak asetzea. Hortaz, laugarrenik, EAJ, EA, EH, Batzarre eta abarri ere aparteko ahalegina galdegiten diet gutxieneko akordio hori lehenbailehen lor dezaten. Eta azkenik, Euskal Ezker Abertzaleko partaidea sentitzen naizen aldetik, adierazi nahi dut guztiz bat natorrela Aralar ildoan esaten diren gauza guztiekin, salbuespenik gabe.

Pena handiz hartu nuen EHk Gasteizko Legebiltzarra uzteko berria. Gainera, kritika motz baina zorrotz bat egiten diot hemendik EHri zentzu horretan, arrazoi batengatik bereziki, hau da, EHko buruek erabaki zutenean Gasteizko Legebiltzarra uztea, esan zuten asmo hori aurrera eramane baino lehen galdetuko ziotela horren gainean oinarriko jendeari, bere iritzia entzuteko. Ongi, bada, nik betidanik eman diet nire botoa

HBri eta EHri aukera izan dudan guztietan (hau diot, azken hauteskundeetan ez zigutelako biderik eman botoa EHren eskuetan jartzeko, eta hori ere akats politiko larritzat jo nuen bere garaian), eta, gainera, aspalditik ordaintzen diot nire kuota koalizio horri, fidel-fidelki, baina, aldiz, gaur egun oraindik jarraitzen dut, Gasteizko Legebiltzarren gainera erabakiari buruz nire iritzia eman ezinik herri-asanbleetan, arrazoi xume bezain petral batengatik, hots, oraindik ez dudalako jaso bilera horretarako dei-gutunik, eta lotsarik gabe aitortzen dut horrek min handi samarra eman zidala, EH sortu eta lehendabiziko hauteskundeetara aurkeztu zenean esan baitzuen Euskal Herriko instituzio guztietan parte hartuko zuela. **Xanti Begiristain Madotz • IRUÑEA**

### Koadrila Eguna

Aurten ere heltzear dugu udara ondorengo lehenengo jai eguna, Koadrila Eguna. Horren inguruan idatzi nahiko nuke, ez baikaude ados Udalak hartu duen bidearekin, neurri batean behintzat.

Azken urteotan ZAGA, Zarauzko Gazte Asanbladak, hartu zuen egun hori antolatzeko ardura, eta hori ez ezik, aurreko bost egunei ere gure ustetan zegokien garrantzia eman genien, Gazte Astea; oso garrantzitsua baiteritzogu, gazteoi interesatzen zaizkigun zenbait gauzaz hitzaldi eta antzeko ekintzen bidez informatu eta entretenitzeko. Esan, bere garaian ZAGAK hartu zuela hori antolatzeko ardura, izenak dioen bezala, Gazte Astea, gazteentzako zuzenduta doalako eta gazteak zer nahi eta behar duen berak baino hobeto inork ez dakielako.

Duela bi urte hasi zen (1998) gauza okertzen, eta argi laga genion Udalarri gu ginela antolatzailerak, beraiek ez baitzuten behatz bat ere mugitzen, eta ados ez bazeuden gure alde tik jarraituko genuela.

Lehenago urtean Udala hasieratik hasi zen trabak jartzen; traba hauek egiteko gune bezala Manuela aukeratzeagatik zetozen bereziki. Guk beti esan genuen Manuela herritarrei zabaltzea zela gure helburuetako bat eta horretarako aukera ona iruditu zitzaigun. Udalaren kontrako jarrera ikusirik, beraiekin moztu eta gure astea antolatzeari ekin genion. Koadrila egunean bertan bazkaria antolatu genuen.

Aurten ere Udalak bere profesionalak lanean jarri ditu eta, nik ikusitakoaren arabera, nahiko larunbat majoa antolatu du. Eta astea zer? Beti ibili izan dira gure desfaserako gogoia jendearen belarrietara eraman nahian, eta gero larunbata bakarrik antolatzen dute, non mozkorkeria nagusitzen den.

Egun beraren inguruan esan nahiko nuke tristea dela azken urte edo urteetako istiluak pasatu beharra Udala zerbait antolatzen hasteko.

Azken gauza azaldu nahiko nukeena da, hasieran esan bezala, guk, gazteok, gure festak antolatu nahi ditugula; eta aurten, gauza nahiko berde egon arren, gure bideari jarraituko diogula. Guk ez dugu eskatzen Udalak ez antolatu eta guk antolatzeko dena; guri, nahi duguna, guk nahi bezala antolatzen uztea baizik. Bi aldeek antolatuz gero, gainera, gure ustetan aukera gehiago egongo lirake eta herritarrek gusturago ibiliko lirake. Aupa ZAGA! **Egoi Agirre (ZAGako kidea) • ZARAUTZ (GIPUZKOA)**

### galdeiozu...



### Kontxu Odriozola

•AKTOREA•

**Telebistan aurkezle lanetan hasteko asmorik-edo ba al duzu? Zergatik?**

Oihana Alberdi [Azpeitia]

■ **AURKEZLE** lanak eta aktoretzak badute zenbait puntutan zerikusia, ikasketa batzuk nahiko berdintsuak dira eta: ahotsa landu, kamerari eta eszenategiari beldurra galdu, memoria landu testuak ikasteko, inprobisaketa eta abar... Nik ez dut antzezle lanari uzteko asmorik. Beharbada, langabeziak bultzatuta, nork daki? Baina lan horretan ere beti antzezle bat izango nintzateke aurkezle lanak egiten.

Urriaren 24tik aurrera  
**Berta Garcia** • EUSKAL  
KONTSUMITZAILEEN

ANTOLAKETAKO ARDURADUNA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.  
Bidali zure galderak ordurako.

### • MONTXO •

